

# ADIKZIOAK PREBENITZEKO ZERBITZUA

## *ABENDUAK 1 HIESAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA*



Egun hau ospatzen hasi zen urtean bezain garrantzitsua da egun hau une honetan, eta egun honek HIESA oraindik ez dela desagertu eta HIESAK pertsonen bizitzan zer nolako eragina izan dezakeen gogorarazten die gizarteari eta gobernuei, horrela, estigma eta bazterketekin amaitzeko eta HIESA daukaten pertsonen bizitza kalitatea hobetzeko.

Abenduaren leian ospatzen da urtero, 1998tik, HIESA prebenitzea eta sentsibilizazioa behar-beharrezkoak direla gogorarazteko, bai eta berau atzemateak daukan garrantzia ere, kutsatzea saihesteko eta birusa duten pertsonen bizitza duin eta emankorra izatea bermatzeko.

**Arlo honetan lan egiten duten bi elkarte daude gure inguruan.**

## Nortzuk dira eta zer egiten dute?

**Bizkaisida edo HIESAren Aurkako Bizkaiko Herri Batzordea** HIESA, Hepatitis Birikoak eta bestelako STIak Prebenitzeko eta Diagnostikatzeko GKE bat da, zeina kolektibo zaurgarrien laguntza sozio-sanitarioan espezializatu baita.



94.416.00.55

[www.bizkaisida.com](http://www.bizkaisida.com)

[bizkaisida@bizkaisida.com](mailto:bizkaisida@bizkaisida.com)

**T4 elkartea**, berriz, irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, zeina 1992tik lanean ari den GIB/HIESA eta eritasun hauekin lotutako bestelako patologiak edota gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan dauden bitza kalitatea eta itxaropena hobetzeko. Horretarako, Bizkaian esku-hartzeak egiten dituzte biztanleekin eta HIESA duten pertsonekin, euren familiakoekin eta aldamenekoekin.



683160405 / 944221240

[www.asociaciont4.org](http://www.asociaciont4.org)

[info@asociaciont4.org](mailto:info@asociaciont4.org)

## COVIDak nola eragin die euren ohiko funtzionamenduan?

Pandemiak malgutzea, hurbiltzea, egokitzea... eskatu du, moldagarriak izatea, entzuteko, behatzeko eta ikertzeko gaitasuna asko zorroztea....

- Beharrezko segurtasun eta higiene neurriak bermatzea, balizko kutsatzeak saihesteko.
- Egitura guztiak ahalik eta gehien egokitzea erabiltzaileek eta langileek bizi dituzten egoeretara.

## COVIDaren ondorioz sortu den testuinguru berriak beste arazo batzuk ekarri ditu?

- Bi elkarte hauetan artatzen diren pertsonak pandemiaren eraginez egoera zaurgarriagoan daude.
- Gaur egungo osasun arretako protokoloa dela eta, orain beranduago erantzuten da, eta horrek harreraren kalitatea murrizten du.
- Berdina gertatzen da buru osasuneko saileko harreran, zeinak harrera ez-presentziala eskaintzen baitie buru gaixotasun larriak dituztenei, eta gaixotasun horiek handiagotzen ari dira COVIDak sortutako estres emozionalaren ondorioz.
- Kutsatzeko beldurra eta HIESA duten pertsonengan birusak izan dezakeen eraginarekiko izua handitu egin dira.
- Artatzen ditugun pertsonengan babes psikologikoa eta emozionala izateko behar handiagoa nabaritzen da, konfinamendu eta isolamendu boluntarioa egoten denean.
- Ezarritako murrizketa neurriak betetzeko zailtasunak, baliabide ekonomiko nahikorik ez izateagatik. Adibidez, pertsona batzuek ezin diote aurre egin maskara erabiltzeko derrigortasunak dakarren inbertsio ekonomikoari, horrek arriskuan jartzen ditu euren osasuna eta euren ingurukoena. Ondorioz, etxebizitzarik gabeko pertsonak eta adikzio arazoak dituzten pertsonak izateagatik pairatzen duten estigmari beste estigma bat gehitzen zaio, izan ere, arau murriztaileak betetzen ez dituzten bizilagunak kriminalizatzen baitira.

**Gehiago jakiteko baliabideak zure nabigatzailean esteka hau kopiatuta:**

[https://www.liburubila.euskadi.eus/Search/Results?lookfor=VIH%2F+SIDA&type=AllFields&cfilm=%7Einstitution%3A%22cFilm%22&filter%5B%5D=%3A\\*](https://www.liburubila.euskadi.eus/Search/Results?lookfor=VIH%2F+SIDA&type=AllFields&cfilm=%7Einstitution%3A%22cFilm%22&filter%5B%5D=%3A*)